

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2026 ekitaldiko ondasun higiezinaren gaineko zerga. Ordainketak borondatezko aldian

2026 ekitaldiko ezaugarri bereziko, hiri-lur eta landa-lur ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiriak, 2026ko irailaren 28tik azaroaren 28ra bitartean, biak barne, borondatezko aldian ordaintzeko jendaurrera aterako dira.

Bankuan helbideratuta dauden erreziboak, urriaren 6an kobratuko dira.

Helbideratuak ez dauden erreziboak berriz, helbide fiskalera bertara bidaliko diegu zorretan dutena ordaintzeko beharrezkoa duten agiria. Zorretan dagoena agiri hori eskura eduki ezean edo urriaren 28rako agiri hori jaso ez badu, eskatu, borondatezko ordainketa aldian, udaletxean.

Borondatezko epea igaro ondoren, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta ordaindu gabeko kuotei otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako errenergua gehituko zaie.

Aramaion, 2026ko irailaren 16an

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA